

# LEHENENGO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B1 maila

## IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h** duzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira.</li> <li>• Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko.</li> <li>• Testuen luzera guztira: 500 hitz gehienez.</li> </ul>	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira.</li> </ul>	30 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

## 1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

**Aukeratu erantzuna.** Bakarra da zuzena.

### SANDWICHAREN JATORRIA

Elikagai praktikoenetako bat da, eta, gaur egun, gogokoenetako bat izaten jarraitzen du, elaboratzeko, garraiatzeko eta kontsumitzeko elikagai erraza behar dutenentzat. Sandwichaz ari gara, bi mende eta erdiko bizitzaren ondoren, mundu guztiko osagaiez aberastu egin dena. Hain da garrantzitsua, non bere nazioarteko egun propioa daukan.

Historiak kontatzen duenez, asmatzailea XVIII. mendeko aristokrata ingeles bat izan zen, John Montagu, Sandwicheko IV. kondea. Hari asko gustatzen zitzaion kartetan jokatzea. Behin, 24 ordu baino gehiagoko partida baten ondoren, nobleak bere morroiei jaten emateko eskatu zien. Nola? Bi ogi xaflen artean haragia jarrita, partida eten gabe eta esku batez bakarrik jan ahal izateko. Horrela, janari berri eta eroso bat sortu zuen. Esaten denez, kondeak bere testamentuan adierazi zuen sorkuntza horri «sandwich» izena jarriko zitzaiola.

Hitz horri buruzko lehen testigantza 1762an eman zen, Edward Gibbon historialari britainiarraren idazki batean. Testuan bi noble politikaz eztabaidatzen ari zirela kontatu zuen, kafetegi batean elikagai berri hori dastatzen ari ziren bitartean.

Sandwichak berehala aurkitu zuen lekua europarren ahosabaietan. Frantzia eta Italian etxean egindako ogi tradizionalak kontsumitzen zen bitartean, ingelesek mamizko ogia hartzen zuten, molde batez egindakoa. Horrela sortu zen gaur egun moldeko ogia bezala ezagutzen duguna.

Berehala egokitu zen sandwicha herrialde bakoitzeko osagai eta ohituretara. Era berean, izen berriak hartu zituen, nahiz eta esentzia berbera izan. Esaterako, Espainian ogitarteko hitzaz ezagutzen da, Mexikon torta deitzen zaio edo Venezuela, Kolonbia eta Ekuadorren sanduhea izenez da ezaguna.

Elikagai horren arrakasta bere prestaketa erraza da, baita izan ditzakeen osagaien aniztasun amaigabea ere. Horri guztiari kontsumitzeko orduan duen erraztasuna gehitu behar zaio: edonon, esku batez soilik jan baitaiteke.

CAYADO, N. *El Correo*. 2020ko azaroaren 3a. Egokitua

## 1. ariketa. Aukeratu erantzuna

### 1. Zer dio testuak sandwichari buruz?

- a) Elikagai errazak nahi dituztenek gustuko dutela.
- b) Bere nazioarteko egun propioa eduki beharko lukeela.
- c) Munduan jendea aberastu egin dela bere osagaiez.

### 2. Zergatik sortu zen sandwicha?

- a) Karta-jokoan egindako apustu batengatik.
- b) Noble batek bere morroiei jaten eman behar zielako.
- c) Jokatzen ari ziren karta-partida bat ez mozteagatik.

### 3. Noiz agertu zen lehen aldiz sandwich hitza?

- a) Historialari batek idatzitako testu batean.
- b) John Montagu kondearen testamentuan.
- c) Bi noblek izandako eztabaida batean.

### 4. Zer ekarri zuen sandwichak?

- a) Mamizko ogia baztertzea.
- b) Moldeko ogiaren asmakizuna.
- c) Ogi tradizionala molde batez egitea.

### 5. Zer gertatu zen sandwicharekin herrialde desberdinetan?

- a) Izena desberdina izan arren, osagai berberak zituela.
- b) Hasieran kostata egokitu zela leku bakoitzeko jateko ohituretara.
- c) Nahiz eta aldaketak izan, esentzia mantendu zuela.

## 2. ariketa

Irakurri ondorengo testuak. Hurrengo orrian esaldi batzuk dauzkazu. Esaldi bakoitza testu bati (A, B edo C) dagokio.

**Lotu esaldiak eta testuak.**

### A BIZIKLETA MAILEGUA GASTEIZEN

Gasteizko Udalak bizikleta elektrikoak maileguan uzteko gune automatizatu berria jarriko du abian. Datozen egunetan hasiko da zerbitzua, San Martineko eraikineko langileek laneko joan-etorrietarako udal ibilgailuak erabil ez ditzaten.

Udalak San Martineko eraikineko lurpeko aparkalekuan instalatu du gune automatizatu, sei bizikleta elektriko maileguan hartu, itzuli eta birkargatzeko. Erabiltzaileek aplikazio bat beharko dute horietaz baliatzeko. Esperientzia pilotuak sei hilabete iraungo du, eta duen arrakastaren arabera erabakiko da bizikleta partekatzeko sistemak jarraituko duen.

<[blogs.vitoria-gasteiz.org](https://blogs.vitoria-gasteiz.org)>. Egokitua

### B BIZIKLETA MAILEGUA BILBON

*Bilbon Bizi* zerbitzuko erabiltzaileek maileguan hartzeko izango dituzten bizikleta elektriko berriak aurkeztu dituzte gaur goizean. Horrela, hiriak dituen zailtasun orografikoak samurrago gainditu ahal izango dira bizikleta horiekin.

Udalak bizikleten mailegu-zerbitzua berri egingo du eta, hemendik aurrera, bizikleta elektrikoak baino ez dira eskainiko. *Bilbon Bizi* zerbitzuan 200 bizikleta mekaniko egon dira, baina urtea amaitzen denerako 300 bizikleta elektriko izango ditu, eta 31 mailegu-puntu izatetik 40 izatera pasatuko da zerbitzua.

Bestalde, zerbitzua gau eta egun erabili ahal izango da egun guztietan; une honetan, 06:00etatik 22:30era erabil daiteke.

<[www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus)>. Egokitua

### C BIZIKLETA MAILEGUA DONOSTIAN

Donostiako Udalak hiriko bizikleten alokairurako sistema berria aurkeztu du. Sistema mistoa izango da, bizikleta mekanikoak eta elektrikoak edukiko baititu. Sistemak hobekuntza nabarmenak izango ditu, adibidez, bizikleta mekaniko arinak eta kalitate handiko bizikleta elektrikoak, bandalismoaren aurkako babesa eta aulki zuloduna dutenak, aulkian urik ez geratzeko.

Hobekuntza horietaz gain, bi geltoki birtual izango dira, hau da, puntu espezifikoetan, nahiz eta geltokirik ez izan, bertan bizikletak utzi ahal izango dira. Beste hobekuntzetako bat ordutegia luzatzea izango da: astelehenetik ostiralera, 06:00etatik 00:00etara, eta larunbat, igande eta jaiegunetan, 24 orduko funtzionamendua.

<[www.donostia.eus](http://www.donostia.eus)>. Egokitua

**2. ariketa. Lotu esaldiak eta testuak**

<b>6.</b>	Bizikleta berriekin erraztu nahi diete ibilbidea herritarrei.
<b>7.</b>	Proba-fasea pasa ondoren ikusiko dute sistema mantenduko duten.
<b>8.</b>	Herritar batzuek baino ez dute bizikleta-mailegua erabiliko.
<b>9.</b>	Geltoki fisikorik ez dagoen lekuetan ere utzi ahalko dira bizikletak.
<b>10.</b>	Zerbitzuak 24 orduko funtzionamendua izango du egun guztietan.

<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>
<b>A</b>	<b>B</b>	<b>C</b>

### Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- **Emandako informazioa ezin duzu hitzez hitz kopiatu.**
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Ez jarri zure izen-abizenik; **asmatu izenpea anonimotasuna bermatzeko.**
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
  - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
  - Ideiak garbi adierazi dituzun.
  - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna edota aberastasuna.

**ZIRRIBORROA EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.  
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartu eta aparteko orrian dagoen **leihoa** bete behar duzu.  
**Gutxienez 100 hitz** idatzi behar dituzu.

**GAIA:** Lagun-kuadrilla bat zarete eta iaz GORA-GORA izeneko mendi-taldea sortu zenuten herrian. Aurten, herritarrak animatu nahi dituzue bertan parte hartzera. Idatzi mezu bat taldearen sare sozialean argitaratzeko, honako hauek kontuan izanda:

- Nor zareten (aurkezpena egin).
- Zergatik erabaki duzuen partaide gehiago izatea.
- Iaz zer ekintza egin zenituzten.
- Zer asmo edo plan dituzuen urte honetarako.
- Animatu herritarrak izena ematera eta ekintzetan parte hartzera.

Zirriborroetarako lekua



Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

**IVAP**

HERRI ARDURALARITZAREN  
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «SANDWICHAREN JATORRIA»

1.	A	2.	C	3.	A	4.	B	5.	C
----	---	----	---	----	---	----	---	----	---

- **2. ariketa:** lotu esaldiak eta testuak.
- **Irakurgaia:** «BIZIKLETA MAILEGUA»

6.	B	7.	A	8.	A	9.	C	10.	B
----	---	----	---	----	---	----	---	-----	---